

KANALAK

Gure zerbitzuaren helburuetako bat, bidaiatutako herrialdeetako gatazkak konpontzera bideratzen da, eta hau kontuan hartuz eraikiko dira komunikazio kanalak eta hori izango da gure lema. Gure zerbitzuak ezagutzera emateko, lehendabizi, sare sozialen bidea hartuko dugu. Instagram, twitter edo facebook bezalako sareetan iragarriko dugu gure nahiak zabaltzeko. Honela hasiera batetik pertsona gazteak erakarriz. Hauen atentzioa ez galtzeko gaur egungo pertsona famatuei iragarkiak egiteko eskatuko diegu, hau da, “sare sozialen influencerrak”. Hauek gazteengan izan dezaketen eragina handia baita. Pertsona hauen bidez gure bezeroak erakartzeko bide askoz ikusgarriagoa da beste iragarki konbentzionalekin alderatuz.

Har dezagun adibide bat. “Gillette” enpresak esaterako “Dulceida” influencerra kontratatu zuten beraien produktua saltzeko, telebistako iragarki baten bidez. Horren ondorioz, fama handia izan zuen eta enpresan diru kantitate handia irabaztea lortu zuen.



Gure zerbitzuak eskeini ondoren, bezeroen helbide elektronikoetara emailak bidaliko ditugu beraiekin harremana ez galtzeko eta gure zerbitzuen berri izateko. Horrez gain, gure zerbitzuak ehuneko handi bat udan izaten dira, horregatik uda aurretik “correos” enpresa kontratuko dugu gure propaganda banatzeko gure zerbitzuak ezagutzera emateko, gazteen artean ez ezik, pertsona helduen artean ere.

Hori gutxi balitz, hainbat kiroltako babesle izango gara, horrela gure bezeroen adin tartea zabalduz. Esateko “Endesa” enpresa elektriko espainiarrak egin duena. Saskibaloiko txapelketa bat sortu du, “Liga Endesa” izenekoa, honen bidez bezero kantitatea handitu egin zaiela suposatzen da.

